

KULTURA SAILA**2301**

AGINDUA, 2006ko apirilaren 3koa, Kultura sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek eta toki-izaerako udalaz gairik erakundeek beren artxibo-sistema jarri edota sendotu ahal izan dezaten diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen bidez, Euskadiko Artxibo Sistema Nazionala (EASN) sortu zen, eta horri dagokio bere barruan dauden artxibo-zerbitzuen planak bateratu eta koordinatzea. Artxibo-zerbitzuetako araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentazio-ondarea erregulatzeke arauak onartzen dituen azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuak 3. artikuluan ezartzen du euskal herritarren dokumentu-ondarearen eremua, dokumentuak edozein garaikoak direlarik. Eremu horretan sartzen dira toki-erakundeek (udalek, udalek baino lurralde txikiagoa hartzen duten entitateek, toki-izaera duten udalaz gairik erakundeek (Arabako kuadrillak barne) eta, sortzen diren bestelako administrazio-entitateek) beren funtzio edo zereginetan dihardutela sortu, bildu edo kontserbatutako dokumentuak. Dekretu horrek berak, halaber, Euskadiko Artxibo Sistema Nazionalaren egitura, onurak, atxikipeak eta funtzioak ezartzen ditu. 23. artikuluan, berriz, Euskadiko udal- eta toki-administrazioko artxibo-zerbitzuak Euskadiko Artxibo Sistema Nazionalan nola sar daitezkeen xedatzen da.

Administrazioko erakunde bakoitzean artxibo-sistema bat ezartzea eta martxan jartzea oinarrizko baldintza da egoki jardun dezan, informazio-baliabideak egoki kudeatzeko eta herritarren oroimena sortzeko bermea denez.

Agindu honen asmoa epe luzeko prozesua jarraitzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administraziolari artxiboko sistema sendo eta eraginkorrak emateko, eta toki-administrazio bakoitzak ondare honen gain duen erantzukizuna egoki betetzen duela ziurtatzeko. Artxiboaren ikusmolde orokorra sustatu nahi da, halaber, administrazio-, informazio- edo kultura-mailako hainbat premiari arreta emateko zerbitzua, alegia.

Hori dena aintzat hartuta, beharrezkotzat jotzen da helburu horiek dituzten ekimenak diruz laguntzea, batez ere, dokumentazio-funts guztiak antolatzen hasteko, eta artxibo-zerbitzu publiko egonkorra sendotu eta finkatzerakoan zerikusirik duten administrazio guztiak elkarrekin jarduteko.

Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen IV. tituluko I. kapituluko («Gordegi zerbitzuez») 73. eta 75. artikulua, eta artxibo-zer-

DEPARTAMENTO DE CULTURA**2301**

ORDEN de 3 de abril de 2006, de la Consejera de Cultura, por la que se establecen subvenciones a entidades locales y supramunicipales de carácter local de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con el objeto de poner en funcionamiento y/o consolidar un sistema de archivo propio.

Por Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, se crea el Sistema Nacional de Archivos de Euskadi (SNAE), al que corresponden la homologación y coordinación de los planes de los servicios de archivo que lo integran. El Decreto 232/2000, de 21 de noviembre, por el que se aprueban el Reglamento de los servicios de archivo y las normas reguladoras del patrimonio documental del País Vasco, establece en su artículo 3 el ámbito del patrimonio documental del pueblo vasco, en el que se incluyen los documentos de cualquier época producidos, reunidos, y conservados por las entidades locales en el ejercicio de sus funciones o actividades, comprendiendo tanto a los municipios como a las entidades de ámbito territorial inferior al municipal, y las entidades supramunicipales de carácter local (entre las que se incluyen las cuadrillas de Álava) y cualquier otra entidad administrativa que pueda crearse. Este mismo Decreto establece, asimismo, la estructura, beneficios, adscripción y funciones del Sistema Nacional de Archivos de Euskadi. En el artículo 23 se dispone la integración de los servicios de archivo de la Administración Municipal y Local de Euskadi en el Sistema Nacional de Archivos de Euskadi.

La implantación y puesta en marcha de un sistema de archivos en cada organismo de la administración constituye tanto la premisa básica para un funcionamiento apropiado del mismo, cuanto la garantía de la gestión apropiada de los recursos de información y de creación de la propia memoria ciudadana.

La presente Orden pretende proseguir un proceso a largo plazo que permita dotar a la Administración Local de Euskadi de sistemas de archivo consolidados y eficaces, que aseguren un ejercicio adecuado de la responsabilidad que sobre este patrimonio cada administración local tiene. A su vez se pretende fomentar una concepción global del archivo, servicio en el que se atienden diversas necesidades de carácter administrativo, informativo o cultural.

Es por todo ello preciso dotar fases de medios económicos a las iniciativas que persigan estos objetivos, haciendo hincapié en la organización global de los fondos documentales y en la corresponsabilización de las administraciones afectadas para la consolidación de un servicio público de archivo estable.

Además de lo dispuesto por la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco en su título IV, capítulo I «De los Servicios de Archivo», artículos 73 y

bitzuetako araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentazio-ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituen 232/2000 Dekretuaren II. kapituluak («Artxibo-zerbitzu publikoak»), artxibo-zerbitzuaren definizioari eta egitekoei buruz xedatzen dutenaz gain, eta agindu hau egoki aplikatu eta garatzeko, artxibo-sistematzat jotzen da artxibo historikora heldu bitartean administrazio-kudeaketaren artikulazioaren eta udal-dokumentazioaren harat-honaten emaitza. Artxibo-sistema lortzeko burutu behar diren jardueri buruz ikuspegi orokor eta sendoa emanez, udal bakoitzak eskaintzen duen definizioa hartuko da artxibo-sistemaren proiektutzat. Eta, azkenik, honako hau hartuko da artxibo-programatzat: udalen artxibo-sistemarako proiektuari jarraituz, urtebeteko epean edo epe laburragoan, osorik zein zatika, behin betiko proiektuaren helbururen bat edo batzuk lortzeko bideratutako programa (diru-laguntzaren xede dena).

Hori dena kontuan izanik, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Agindu honen xedea diru-laguntzak emateko erregimena arautzea da, 2006ko ekitaldi honetan programak garatzeko. Programa horiek artxibo-sistemaren proiektu batean sartuta daude, artxibo-sistema propio bat ezartzea edo sendotzea dute helburu, edo artxibo-sistema propio bat edukitzeko proiektuak lantzea. Toki-erakunde batek gauzatzeko programak izan daitezke, eta toki-erakundeetan sartzen dira bai udalak eta bai udalek baino lurralde txikiagoa hartzen duten entitateak ere; eta toki-izaera duten udalaz gaindiko entitateak gauzatzeko programak ere izan daitezke. Hori guztia hurrengo artikuluetan ezartzen den moduan.

Horretarako, tokian tokiko artxibo-sistema lortzeko burutu behar diren jardueri buruz ikuspegi orokor eta sendoa emanez, toki-erakunde edo udalaz gaindiko erakunde bakoitzak eskaintzen duen definizioa hartuko da artxibo-sistemaren proiektutzat. Era berean, artxibo-sistemarako proiektuari jarraituz, aurtengo ekitaldian, osorik zein zatika, artxibo-sistemarako proiektuaren helbururen bat edo batzuk lortzera bideratutako jarduera edo jardueren multzoa joko da artxibo-programatzat.

Agindu honen bidez araututako diru-laguntzen gehieneko kopurua 250.000 eurokoa izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean dituen aurrekontu orokorretan horretarako berariaz ezarrita dagoen diru-ataletik aterako da.

2. artikulua.— Onuradunak.

1.— Toki-erakundeak izan daitezke agindu honetan ezartzen diren diru-laguntzen onuradunak, eta horretan sartzen dira udalak, udalek baino lurralde txikiagoa hartzen duten entitateak eta toki-izaera duten udalaz gaindiko entitateak. Horretarako, baldintza hau be-

75, y por el Decreto 232/2000 por el que se aprueban el Reglamento de los servicios de archivo y las normas reguladoras del patrimonio documental del País Vasco, capítulo II «De los servicios de archivo públicos», sobre la definición de servicio de archivo y las funciones que le son propias, y a los efectos de la correcta aplicación y desarrollo de esta Orden, se entiende por sistema de archivo el resultado de la articulación de la gestión administrativa y de los flujos de documentación municipal hasta su llegada al archivo histórico. Se denomina proyecto de sistema de archivo, a la definición que propone cada municipio destinada a ofrecer una visión general y completa de las actuaciones para dotarse de un sistema de archivo. Y, por último, se denomina programa de archivo al programa anual o de inferior duración, motivo concreto de la subvención, que se dirige a cumplir íntegra o parcialmente alguno o algunos de los elementos que conforman el proyecto de sistema de archivo municipal.

En virtud de lo cual,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

Es objeto de la presente Orden la regulación del régimen de concesión de subvenciones destinadas a la ejecución durante el presente ejercicio de 2006 de programas que, insertos en un proyecto de sistema de archivo, supongan la implantación y/o consolidación de un sistema de archivo propio, o la elaboración de proyectos para dotarse de un sistema de archivo propio. Programas a ejecutar bien por una entidad local, comprendiendo tanto a los municipios como a las entidades de ámbito territorial inferior al municipal, o bien por una entidad supramunicipal de carácter local. Todo ello en los términos establecidos en los artículos siguientes.

A tales efectos se entenderá por proyecto de sistema de archivo la definición que proponga cada entidad local o supramunicipal, dirigida a ofrecer una visión general y completa de las actuaciones para dotarse de un sistema de archivo. Asimismo, se entenderá por programa de archivo la actuación o conjunto de actuaciones que, en consonancia con el proyecto de sistema de archivo, y durante el presente ejercicio, se dirijan a cumplir parcial o íntegramente alguno o algunos de los elementos que conforman el proyecto de sistema de archivo.

Las subvenciones reguladas en la presente orden se otorgarán por un importe global máximo de 250.000 euros, con cargo a la dotación presupuestaria que, al efecto, se ha dispuesto en los presupuestos generales en vigor de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 2.— Beneficiarios.

1.— Serán susceptibles de ser beneficiarios de las subvenciones establecidas al efecto en la presente Orden las entidades locales, comprendiendo tanto los municipios como las entidades de ámbito territorial inferior al municipal, y las entidades supramunicipales de carácter lo-

te beharko dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoren batek lehendik ere helburu berbererako emandako diru-laguntzengatik hasitako edozein itzulketa- edo zigor-prozedura bukatuta edukitzea.

2.– Ezingo dute agindu honetako diru-laguntzarik eskatu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, sexubereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalik duten pertsona fisiko edo juridikoek, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen indarrez jarritako isunen ondorioz debekua dutenek ere.

3. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketan jarduerak.

Xede hauetakoren bat edo batzuk dituzten programak lagundu ahal izango dira diruz:

a) Deskribatzeko tresnak sortu edo hobetzea. Funtsen deskribapena sustatzen duten programen bitartez nahiz deskribatzeko tresnak informatizatu nahi dituzten programen bitartez, zabalkundeko politika eraginkor bat lortzeko.

b) Dokumentu-funtsak baloratzea. Funtsak gordezko edo ezabatzeko politika orokor baten atal gisa bertan ere.

c) Artxiboko lokalak hobetzea: bai kontserbazio-baldintzei dagokienean, eta bai dokumentu-funtsen kontsultari dagokienean ere.

d) Kultura-zabalkunderako artxibo-jarduerak.

e) Mankomunitateko artxibo-zerbitzuei eustea.

Beren beregi kanpora uzten dira dokumentu-funtsak zaharbertzeko, transkribatzeko edo digitalizatzeko laguntzak.

Programa horiek urtebeteko iraupena izango dute gehienez eta, dena dela ere, 2006ko abenduaren 31 baino lehen bukatu beharko dira.

4. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

Agindu honetan adierazitako diru-laguntzak jaso nahian bidalitako eskabideak Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari zuzenduko zaizkio eta Kultura Sailean aurkeztuko dira behar bezala beteta, bai zuzenean, bai azaroaren 26ko 30/1992 Legean eskainitako bideetarik edozein erabiliz (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Eskabidearekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

cal de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siempre que tengan finalizado cualquier procedimiento de reintegro o sancionador iniciado en el marco de ayudas o subvenciones anteriores destinadas al mismo objeto procedentes de la Administración General de la Comunidad Autónoma Vasca y sus organismos autónomos.

2.– No podrán concurrir, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, a las ayudas reguladas en esta convocatoria las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artículo 3.– Actividades subvencionables.

Serán susceptibles de ser subvencionados los programas destinados a la/las:

a) Creación o mejora de instrumentos descriptivos. Tanto a través de programas que promuevan la descripción de fondos, como de otros que pretendan la informatización de los instrumentos descriptivos de cara a una política eficaz de difusión.

b) Valoración de fondos documentales. Siempre como parte de una política global de conservación/eliminación de fondos.

c) Mejora de locales de archivo: tanto en lo relativo a las condiciones de conservación, como a las de consulta de los fondos documentales.

d) Actividades archivísticas de difusión cultural.

e) Mantenimiento de servicios de archivo mancomunados.

Se excluyen expresamente las ayudas para la restauración, la transcripción o la digitalización de fondos documentales.

El período para la realización de este programa deberá tener como máximo una duración de un año y, en todo caso, no finalizará con posterioridad al 31 de diciembre de 2006.

Artículo 4.– Presentación de solicitudes.

Las solicitudes para acogerse a las subvenciones establecidas en la presente Orden se dirigirán al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, y se presentarán debidamente cumplimentadas en el Departamento de Cultura, bien directamente, bien por cualesquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

A dicha solicitud se acompañará separadamente:

a) Memoria xehatua; aurkezten den programaren edo proiektuaren helburuak, jarduerak, epeak, aurrekontu xehatuak eta justifikazioa jasoko ditu.

b) Artxiboko lokalen deskribapena eta artxibo-zerbitzuan gordeta dauden funtsen identifikazioa (bertakoak nahiz kanpotik etorriak), agindu honetako I. eranskinaren arabera.

c) Beste edozein erakunde publiko zein pribaturi helburu berberaz eskatutako diru-laguntzen zerrenda, erakundearen izena eta diru-laguntzaren egoera aipatuta (ezetsia, erantzunaren zain ala emana, eta diru-kopuruak). Beste laguntzarik eskatu ez bada, aipatutako xederako beste laguntzarik ez dela eskatu aitortzen duen agiria.

d) Diru-laguntzen deialdi honetara aurkeztutako baliuzko onuradunak, pertsona fisiko edo juridikoak, sexu-bereizkeria dela-eta inolako zigor-prozeduran sartuta ez daudela aitortzen duen agiria, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen kariaz.

5. artikulua.— Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzari dagokio agindu honen bidez araututako diru-laguntzak kudeatzeko egin beharrekoak egitea. Lan hori Irargiren bidez egingo du, hau da, Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroaren bidez.

6. artikulua.— Aurkezten den eskabidean egindako hutsen zuzenketa.

Eskabidea eta agindu honen 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eskatutako gainerako dokumentazioa aztertu ondoren, ikusten bada akatsak daudela edo dokumentazioa osatu gabe dagoela, eskabide-egileari gorabehera horren berri emango zaio, arazoa konpon dezan. Horretarako, hamar egun balioduneko epea izango du, dagokion jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita. Epe hori bukatuta ez bada dokumentazioa behar bezala zuzentzen, bere eskabidea ezetsitatu joko da horretarako emango den ebazpenaren bidez.

7. artikulua.— Kalifikazio Batzordea.

1.— Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea Kalifikazio Batzordeari dagokio, agindu honen 8. artikuluan ezarritako jarraibideak aintzat hartuta. Era berean, batzorde horrek egingo du ebazpen-proposamena eta, ondoren, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari igorriko dio. Bertan azalduko dira, hala badagokio, onuradun bakoitzari egokitutako diru-kopurua eta diru-laguntzaren helburua.

2.— Kalifikazio Batzordeko kideak hauek dira:

— Kultura Ondareko zuzendari andrea edo horrek izendatutako pertsona. Batzordeburua izango da eta ka-

a) Memoria detallada en la que se contemplen los objetivos, actividades, plazos, presupuestos detallados y justificación del programa o proyecto que se presente.

b) Descripción de los locales de archivo e identificación de los fondos (tanto de origen propio como ajeno) conservados en el servicio de archivo conforme al anexo I de la presente Orden.

c) Una relación de cualesquiera otras ayudas que se hayan solicitado a entidades públicas o privadas para el mismo objeto, así como estado de las mismas (denegadas, pendientes de resolución, concedidas e importes). Caso de no haber solicitado ninguna otra ayuda, documento declarativo de no haber solicitado otras ayudas para el referido objeto.

d) Declaración jurada o responsable destinado a acreditar que las posibles personas físicas o jurídicas beneficiarias de las ayudas reguladas en esta convocatoria no se encuentran incurso en ningún procedimiento sancionador de discriminación por razón de sexo en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artículo 5.— Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Patrimonio Cultural, a través de Irargi—Centro de Patrimonio Documental de Euskadi, la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

Artículo 6.— Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

En el supuesto de que, analizada la solicitud y demás documentación requerida de conformidad con lo previsto en el artículo 4 de la presente Orden, se observara la existencia de defectos o la documentación fuera incompleta, se pondrá en conocimiento del solicitante dichas circunstancias para su subsanación, otorgándose un plazo de diez días hábiles a contar desde el siguiente al de recepción de la notificación correspondiente. Si una vez transcurrido este plazo la subsanación no ha sido realizada, se le tendrá por desistido, previa Resolución emitida al efecto.

Artículo 7.— Comisión de Calificación.

1.— Corresponderá a una Comisión de Calificación el examen y evaluación de las solicitudes presentadas, de conformidad con los parámetros establecidos en el artículo 8 de la presente Orden, así como la elaboración y elevación al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes de la Propuesta de Resolución correspondiente, la cual, en su caso, contendrá la cuantía de la subvención por beneficiario y el destino de la subvención.

2.— La Comisión de Calificación estará compuesta por:

— La Directora de Patrimonio Cultural, o persona en quien delegue, que ejercerá las funciones de Presiden-

litate-botoa izango du, boto-berdinketa gertatuz gero azken erabakia emateko.

– Irargi-Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroko bi teknikari, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak izendatuak. Teknikari horietako bat batzordeko idazkaria izango da.

8. artikulua.– Esleipenerako irizpideak.

1.– Diru-laguntzak emateko prozedura orokorra lehiaketa izango da. Aurkeztutako eskabideak alderatzea izango da prozedura, eskabideak hurrenkeran ipini ahal izateko, artikulua honetan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Aipatutako irizpideak aplikatuta baloraziorik handiena lortzen duten eskabideei emango zaizkie diru-laguntzak.

2.– Agindu honetan araututako diru-laguntzak emateko, honako ezaugarri hauek baloratuko dira aurkezten den programa bakoitzean:

a) Sendotasun zientifikoa duen programa eta proiektua izatea, diseinatutako ekimena epe luzera sendotzea aurreikusten duena; lan-faseen sekuentzia bat diseinatuko da, horietako bakoitzean parte hartzen duten elementuak baloratuko dira eta gastua osatzen duten elementuen zenbatespen zehatza planteatuko da (% 35).

b) Artxiboko funtsak kontserbatzeko, eskuratzeko eta kontsultatzeko baldintzak hobetzeko aukera ematen duen programa izatea (% 20). Nolanahi ere, ukatu egingo dira orain eta etorkizunean artxiboko funtsak kontserbatzeko edo eskuratzeko gutxieneko baldintzak bermatzen ez dituzten eskabideak.

c) Hainbat artxibo-zerbitzuz parte hartzeko programa izatea, hainbat udal edo kontzeju hartzen dituzten erakunde juridikoen bitartez, edo hainbat udalen arteko lankidetzaz espeziфикoen bitartez (% 15).

d) Estandar terminologikoen erabilera sustatzea, deskribapen-motakoak (fitxak betetzeko arauak, izendapenak eta abar) edo sailkapen-motakoak (sailkapen-taulak, atalen, serieen eta abarren izendapenak), batez ere euskaraz (% 15).

e) Eskabide-egileak aurreikusitako gastuaren % 50etik gorako finantziazioa planteatzea (% 15).

Nolanahi ere, elkarrizketa bat egin ahal izango da toki-erakundearen edo udalaz gaindiko erakundearen ordezkariekin, aurkeztutako eskabideak egoki ebaluatu ahal izateko.

3.– Kalifikazio Batzordeak, aurkeztutako programaren zati bat edo batzuk bakarrik hautatu ahal izango ditu diru-laguntzaren xedetzat, eta horrela jaso 7. artikuluan aurreikusitako ebazpen-proposamenen.

te de la Comisión y dirimirá, con voto de calidad, los empates que pudieran producirse.

– Dos técnicos de Irargi-Centro de Patrimonio Documental de Euskadi, designados por la Dirección de Patrimonio Cultural, uno de los cuales actuará como Secretario de la Comisión.

Artículo 8.– Criterios de adjudicación.

1.– El procedimiento general para la concesión de las subvenciones será el concurso. Procedimiento por el cual la concesión se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración prefijados en este artículo, adjudicándose las subvenciones a aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de los citados criterios.

2.– Para la adjudicación de las subvenciones reguladas en la presente Orden, se evaluará la concurrencia en cada programa presentado de las siguientes características:

a) Que se trate de un programa y proyecto con solidez científica que prevea a largo plazo la consolidación de la iniciativa diseñada, diseñándose una secuencia de fases de trabajo en la que se valoren los elementos que intervienen en cada una de ellas, y en las que se planteen una estimación precisa de los diferentes elementos que integren el gasto (35%).

b) Que se trate de un programa que permita una mejora en las condiciones de conservación, acceso y consulta de los fondos de archivo (20%). En cualquier caso, se denegarán las solicitudes que no aseguren las condiciones mínimas de conservación o acceso, presente y futuro, a los fondos de archivo.

c) Que se trate de un programa en el que intervengan diferentes servicios de archivo, bien a través de entidades jurídicas que engloban a varios ayuntamientos o concejos, o a través de colaboraciones específicas entre varios de ellos (15%).

d) Que se fomente el uso de estándares terminológicos bien de tipo descriptivo (normas en la redacción de fichas, denominaciones, etc.) o de tipo clasificatorio (cuadros de clasificación, denominación de secciones, series, etc.), especialmente en euskera (15%).

e) Que se planteen por parte del solicitante una financiación superior al 50% del gasto presupuestado (15%).

En cualquier caso, se podrá realizar una entrevista con los representantes de la entidad local o supramunicipal de cara a una correcta evaluación de las solicitudes presentadas.

3.– La Comisión Calificadora podrá determinar sólo una parte o partes del programa presentado como objeto de la subvención, y recogerlo de esta forma en la Propuesta de Resolución prevista en el artículo 7.

9. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa eta muga.

1.– Diru-laguntzetarako aurkeztutako programa bakoitzari, aurkeztu duen aurrekontuaren % 50 eman-go zaio gehienez ere.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitakoa alde batera utzi gabe, programa bakoitzeko diru-laguntza ez da 15.000 euro baino gehiagokoa izango.

10. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Agindu honetan adierazitako diru-laguntzak bateragarriak dira erakunde publiko zein pribatuek helburu berberaz emandako beste laguntza batzuekin, beti ere, guztira jasotako diru-kopuruak aurrekontu osoa gaintitzen ez badu. Horrela gertatuz gero, eman beharreko diru-laguntzatik kendu egingo da dagokion kopurua, lagundutako programaren kostu osoari dagokion gehienezko kopurura egokitu arte.

11. artikulua.– Eskabideei buruzko ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari dagokio, ebazpen-proposamena ikusita, aurkeztutako eskabideen inguruko ebazpena egitea.

2.– Ebazpena diru-laguntza ematearen aldekoa bada, agindu honen 7.1 artikuluan ezarritako jarraibideak errespetatuko dira.

3.– Prozeduran interesdunak diren guztiei jakinaraziko zaie Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ebazpena, onuradunei eta laguntzen zenbateko zehazteari buruzkoa, eta errekurtsua aurkezteko epea hasiko da. Ondoren, EHAA n argitaratuko da ebazitako deialdiari buruzko erreferentzia.

4.– Ebazpenak bi hilabeteko epean egin eta jakinaraziko zaizkie interesdunei, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasita. Epe hori bukatuta, jakinarazpenik egin ezean, eskatutako diru-laguntza ezetsi egin dela ulertu beharko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Aurreko paragrafoan esandakoa esanda ere, agindu honen 6. artikuluan adierazitakoa gertatuz gero, ebazpena emateko epea etenda geratuko da izapideak behar duen beste denboraz, jakinarazpena jasotzen den eguna eta erantzunerako epea kontuan hartuta.

12. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan ezarritakoaren arabera araututako diru-laguntzak jasotzen dituztenek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Diru-laguntza berri ematen dien jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epean erakunde onuradunek ukoa

Artículo 9.– Cuantía y límite de las subvenciones.

1.– Las subvenciones podrán alcanzar hasta el 50% del importe del presupuesto presentado en cada programa presentado a efectos de subvención.

2.– Sin perjuicio de lo señalado en el párrafo anterior la subvención por programa no podrá superar la cantidad de 15.000 euros.

Artículo 10.– Compatibilidad de las subvenciones.

Las subvenciones establecidas en la presente Orden serán compatibles con cualesquiera otras concedidas para el mismo objeto por organismos públicos o privados, sin que, en ningún caso, pueda existir sobrefinanciación, procediendo en tal supuesto a la reducción de la subvención a conceder hasta el límite del costo total del programa subvencionado.

Artículo 11.– Resolución y notificación de las solicitudes.

1.– Corresponderá al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes a la vista de la Propuesta de Resolución elaborada, la resolución de las solicitudes presentadas.

2.– Cuando la resolución fuera positiva contendrá las determinaciones señaladas en el artículo 7.1 de la presente Orden.

3.– La Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes por la que se determinan los beneficiarios y la cuantía de las ayudas será notificada a todos los interesados en el procedimiento, dando de esta manera apertura al plazo de recurso. Posteriormente se publicará en el BOPV una referencia a la convocatoria resuelta.

4.– La Resolución será dictada y comunicada a los interesados en el plazo de dos meses, a contar desde el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes, transcurrido el cual sin que hubiera sido notificada, las solicitudes podrán entenderse desestimadas a los efectos de lo previsto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

No obstante lo dispuesto en el párrafo precedente, cuando fuere de aplicación lo previsto en el artículo 6 de la presente Orden, el plazo para resolver se suspenderá por el tiempo que aquel trámite requiera, en función de la recepción de la notificación y del plazo para su contestación.

Artículo 12.– Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido si, en el plazo de quince días hábiles tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la con-

idatziz adierazten ez badute, onartu egiten dutela ulertuko da.

b) Zertarako eman den diru-laguntza, helburu horretarako erabilteza.

c) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Irargi-Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroaren babesa beren beregi adieraztea, diru-laguntza honen ondorioz egiten diren jarduera eta dokumentu guztietan, bai eta horien publizitatean ere.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari aurkeztu beharko diote, euren funtzioak betetzeko honen ondorioz jasotako diru-laguntzei dagokienez eskatzen den informazio oro.

13. artikulua.— Diru-laguntzen ordainketa.

1.— Diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

a) Lehenengoa, emandako laguntzaren % 75a, onuradunak ukorik egin ez badu.

b) Bigarren zatia, gainerako % 25a, aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatzeko eta kitatzeko ezarritako dokumentazioa jaso eta egiaztatu ondoren.

2.— Diru-kopuru hori abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako berme-araubidearen arabera bermatuko da (Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermei eta itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen dekretua).

14. artikulua.— Diru-laguntzen justifikazioa eta kitapena.

1.— Agindu honetan ezarritako diru-laguntzen onuradunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, 2007ko otsailaren 1a baino lehenago:

a) Lagundutako programa edota proiektu bakoitzaren helburua betetzeari buruzko memoria.

b) Egindako gastuei buruzko egiaztagiria, idazkariak, kontu-hartzaileak edo idazkari kontu-hartzaileak egina, II. eranskineko ereduaren arabera.

c) Hala egokituz gero, diruz lagundutako programa bakoitzaren garapenean sortutako zientzia-materialak (inbentarioak, katalogoak eta abar). Material horiek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren menpeko informazio-sistemetan sartu ahal izango dira.

d) Diru-laguntzaren eskabidea aurkezteko unean hartuko zuten ez jakiteagatik adierazi gabe geratu eta ondoren xede berberaz jasotako gainerako laguntza guttien aipamena.

cesión de la subvención, las entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Dejar constancia expresa del patrocinio de Irargi-Centro de Patrimonio Documental de Euskadi, del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, en todas las actividades y documentos que se realicen con las ayudas procedentes de esta subvención, así como en la publicidad de las mismas.

d) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

Artículo 13.— Abono de las ayudas.

1.— El abono de las subvenciones concedidas se realizará en dos pagos:

a) El primero equivalente al 75% de la ayuda concedida, de no haber mediado renuncia del beneficiario.

b) El segundo 25% restante previa la recepción y verificación de la documentación establecida para la justificación y liquidación del 100% del presupuesto presentado.

2.— Dicha cantidad será garantizada de acuerdo con el régimen de garantías establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las entidades colaboradoras que participan en su gestión.

Artículo 14.— Justificación y liquidación de la subvención.

1.— Los beneficiarios de las subvenciones establecidas en la presente Orden, deberán presentar con anterioridad al 1 de febrero del 2007, la documentación siguiente:

a) Memoria justificativa del cumplimiento del objeto de cada programa y/o proyecto subvencionado.

b) Certificación del/de la Secretario/a, del/de la Interventor/a o Secretario/a-Interventor/a, correspondiente a los gastos realizados, según el modelo del anexo II.

c) En su caso, materiales científicos (inventarios, catálogos, etc.) producidos en el desarrollo de cada programa subvencionado, que podrán ser integrados en los sistemas de información dependientes del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

d) Relación de cualesquiera otras ayudas con destino al mismo objeto, de cuya efectividad no se tuviera conocimiento en el momento de presentación de la solicitud de la presente subvención.

2.– Aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak kitapen-ebazpena egingo du eta, hala badagokio, ordainduko den diru-laguntzaren azken egokitzapena egingo. Era berean, ordurako ordainduta dagoen diru-laguntzatik zein diru-kopuru itzuli behar den zehaztuko du, itzuli behar izatea gertatuz gero, dela aldi berean beste laguntza eta diru-laguntzaren bat jaso delako edo diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetakoren bat aldatu delako. Hori gertatzen bada, bi hilabeteko epea emango da, kitapen-ebazpenaren berri ematen den egunaren biharamunetik hasita.

15. artikulua.– Diruz lagundutako programen jarraipena.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak diruz lagundutako programa edo proiektua nola burutzen ari den begiratu dezake eta, horretarako, lantokietara sartzeko modua izateaz batera, nahi beste argibide eskatzeko eskubidea izango du.

16. artikulua.– Baldintzak ez betetzea.

1.– Bete beharrekoak bete gabe geratu direla ulertuko da ondorengo kasuetan:

a) Jasotako diru-laguntzak, osorik zein zatiren bat, agindu honetan adierazi bezala onartutako jardueretarako erabili beharrean, beste zerbaitetarako erabiltzen badira.

b) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, dagokion kasuan, diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritakoak betetzen ez badira.

c) Hala badagokio, diru-laguntzaren kitapen-ebazpenean zehaztutako diru-kopurua itzultzen ez bada, horretarako emandako epearen barruan.

d) Xedapen orokorretan nahitaez bete beharrekotzat jotako beste edozer betetzen ez bada.

2.– Kasu horietan, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoa aplikatuko da, horren bitartez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretatik emandako diru-laguntzak bermatu eta itzularazteko modua eta, era berean, dekretu beraz ezartzen baitira diru-laguntzoz kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek errespetatu beharreko baldintza, jarraibide eta betebeharrak. Horrez gain, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan ezarritakoa ere aplikatuko da. Horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zen.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Kultura Sailaren beste laguntza-programetarako erabilitako diru-kopurutik dirua soberan gelditzen bada, 1. artikuluan adierazitako diru-kopurua alda daiteke, eskatutako diru-laguntzen kopurua kontuan hartu-

2.– A la vista de la documentación aportada, el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes procederá, en su caso, a dictar la oportuna Resolución de Liquidación, en la que, realizará el ajuste final de la subvención a abonar. De igual modo, en su caso, señalará la cuantía de la subvención ya abonada cuyo reintegro procede, bien sea por la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas, bien por cualquier alteración que pudiera haber acaecido en las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de esta, otorgando, en estos supuestos, un plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de recepción de la Resolución de Liquidación, para efectuarlo.

Artículo 15.– Seguimiento de los programas subvencionados.

La Dirección de Patrimonio Cultural podrá inspeccionar la ejecución de los programas o proyectos subvencionados y, a dichos efectos, acceder a los lugares de realización de los mismos, así como requerir cuanta información estime conveniente.

Artículo 16.– Supuestos de incumplimiento.

1.– Constituirán supuestos de incumplimiento:

a) La aplicación total o parcial de las subvenciones percibidas para actividades distintas de las previstas en la presente Orden.

b) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Orden o de las condiciones que, en su caso, se establezcan en la Resolución concedente.

c) La no devolución de la cuantía que, en su caso, se señale en la Resolución de Liquidación de la subvención, en el plazo para ello establecido.

d) Cualquier otra que sea de obligado cumplimiento por así establecerlo con carácter general cualquier otra disposición.

2.– En dichos supuestos serán de aplicación lo dispuesto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las entidades colaboradoras que participan en su gestión, y lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El importe global consignado en el artículo 1 podrá ser modificado teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la eje-

ta. Kopuru hori aldatzea diru-laguntzei buruzko ebazpena egin aurretik erabakiko da. Eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen bitartez argitara eman-go da egoera hori, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eman ere.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Agindu honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Kultura sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Aginduaren aurka aurkeztu daiteke, baita ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitako Salan, bi hilabeteko epean, dagoeneko aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.— Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko apirilaren 3a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

cución de otros programas de ayudas del Departamento de Cultura y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad en el Boletín Oficial del País Vasco mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.— La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de abril de 2006.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

I. ERANSKINA

Artxibo-zerbitzua:		
Helbidea:		
Udalerrria:		PK:
Telefonoa:		
Posta elektronikoa:		

Artxiboko arduraduna:	
Lanpostua:	

Erakundearen legezko ordezkaria (alkatea, lehendakaria...):

Zein hizkuntzatan egiten dira diru-laguntza honetara aurkeztutako jarduerak?
--

Artxiboko (edo bildumako) funtsak

Adibidea

Izena	XXXXXX(e)ko udal-funtsa
Bolumena	1. 245 m (metro lineal) 2. 479 kutxa
Hasierako eta amaierako datak	1845-2002
Deskribatzeko tresnak	1. XXXXXXXXXXXX(e)ko udal-dokumentazioaren inbentarioa d.g. (datu-basea) 2. XXXX(e)ko udal-dokumentazio historikoaren fitxategia (1940)

1. Funtsa

Izena	
Bolumena	
Hasierako eta amaierako datak	
Deskribatzeko tresnak	

2. Funtsa

Izena	
Bolumena	
Hasierako eta amaierako datak	
Deskribatzeko tresnak	

3. Funtsa

Izena	
Bolumena	
Hasierako eta amaierako datak	
Deskribatzeko tresnak	

Artxiboko lokalak:

1. Artxibo-gordailua

– Artxibo-gordailuaren azalpena (kokalekua, m², etab.):

.....
.....

– Segurtasun-neurriak:

.....
.....

2. Jendaurreko zerbitzua

– Jendaurreko ordutegia:

.....
.....

Kontsulta-tokia (ezaugarriak):

.....
.....

.....(e)n, 2006koren(e)an

Kultura arduraduna

.....

Iz.:

Artxibo edo programaren arduraduna

.....

Iz.:

II. ERANSKINA

..... jaunak/andreak,
.....
..... Udaleko edo
entitateko idazkaria, kontu-hartzailea edo idazkari kontu-hartzailea naizen aldetik, hauxe

EGIAZTATZEN DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren artxibo-sistema jarri edota sendotu ahal izan dezaten diru-laguntzak emateko modua aurautzen duen Kultura sailburuaren 2006ko martxoaren 15eko Aginduaren babesean emandako laguntzen esparruan, gastu hauek egin direla proiektu edota programetan:

Kontzeptua:

.....
.....

Aurrekontua:

.....
.....

Gastatutakoa:

.....
.....

Horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izateko, ziurtagiri hau egiten dut.

.....(e)n, 2006koren(e)an

ANEXO I

<i>Servicio de archivo:</i>		
<i>Dirección:</i>		
<i>Municipio:</i>		<i>C.P.:</i>
<i>Teléfono:</i>		
<i>Correo electrónico:</i>		

<i>Responsable del archivo:</i>	
<i>Puesto de trabajo:</i>	

<i>Representante legal de la entidad (alcalde, presidente...):</i>
--

<i>Lengua en la que se realizan las actividades acogidas a esta subvención:</i>

*Identificación de los fondos (o colecciones) de archivo**Ejemplo*

<i>Nombre</i>	<i>Fondo municipal de XXXXXXX</i>
<i>Volumen</i>	1. 245 m (metros lineales) 2. 479 cajas
<i>Fechas extremas</i>	1845-2002
<i>Instrumentos de descripción</i>	1. <i>Inventario de la documentación municipal de XXXXXXXXXXX. s.f. (Base de datos)</i> 2. <i>Fichero de la documentación histórica del Ayuntamiento de XXXX. 1940</i>

Fondo 1

<i>Nombre</i>	
<i>Volumen</i>	
<i>Fechas extremas</i>	
<i>Instrumentos de descripción</i>	

Fondo 2

<i>Nombre</i>	
<i>Volumen</i>	
<i>Fechas extremas</i>	
<i>Instrumentos de descripción</i>	

Fondo 3

<i>Nombre</i>	
<i>Volumen</i>	
<i>Fechas extremas</i>	
<i>Instrumentos de descripción</i>	

Locales de archivo:

1. Depósito de archivo

– Descripción del depósito de archivo (localización, m², etc.):

.....

.....

– Medidas de seguridad:

.....

.....

2. Servicio al público

– Horario al público:

.....

.....

– Lugar de consulta (características):

.....

.....

En, a de de 2006

Responsable de Cultura

.....

Fdo.:

Responsable del archivo o programa:

.....

Fdo.:

ANEXO II

D./D.ª
.....en calidad de secretario/a, interventor/a o secretario/a-interventor/a del Ayuntamiento/ o de la Entidad de

CERTIFICO que:

En el marco de las ayudas concedidas al amparo de la Orden de 15 de marzo de 2006, de la Consejera de Cultura, por la que se establecen subvenciones a entidades locales y supramunicipales de carácter local de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con el objeto de poner en funcionamiento y/o consolidar un sistema de archivo propio, se ha realizado el siguiente gasto para la realización de los siguientes proyectos y/o programas:

Concepto:

.....
.....

Presupuestado:

.....
.....

Gastado:

.....
.....

Y para que así conste a los efectos oportunos expido la presente certificación.

En, a de de 2006

VICECONSEJERO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES